

**Arantxa Urbe**

Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

Bizitza helburu duten konpetentziak eta balioak

Zure ustez nola bizi behar duzun, hala bizitzea da mundu honetan egoteko modu zentzudun bakarra.

Bizitza ez daukat zirrararik eragiten ez didaten gauzetan lan egiteko. Bizitza ez daukat maite ez ditudan gauzak egiteko. Bizitza hau benetan bizi behar duzu, bestela ez zara bizi. Punto».

Bizitzaren gainean egindako gogoe-ta gordina David Beriain Artaxoako (Nafarroa) kazetari eta dokumental-gilearena da. Joan den hilean Burkina Fasoko oihanean erail zuten zirrarara eragiten zion eta maite zuen horretan ari zela, lanean.

Natural atera ziren hitzak nafarra-ren ahotik, bizitzaren ertzak ongi eza-gutu dituenak soilik esan ditzakeen naturaltasunez. Zuzen-zuzenean iritsi zait mezua bihotzera, eta nire baitan galdera bat hasi da oihartzun egiten: nola begiratzen ote diogu bizitzari he-ziguneetatik?

Kazetariaren arrastoari jarraituz aurkitu nuen Artaxoako Urraka Erre-gina eskola publikoko Lehen Hez-kuntzako ikasleek egin zioten elka-rrizketa, eskaini zuen azkena. Herrikide zituen 6 urteko neska-mu-tilek lau galdera luzatu zizkieten; baita berak zintotasunez eta maisu-ki erantzun ere. Haurrek ulertuko zu-ten hizkuntzan aritu zitzairen beldu-rraz, gerraz, goseaz, kazetaritzaz, eta erantzun haien bidez benetako bizi-tzaz, munduan egoteko era batez, hitz egin zien apaingarririk gabe. Helduoi sarri hain zailak eta desero-soak egiten zaizkigun eta gehienetan saihestu edo topiko batez erantzuten ditugun galderak.

Beriainen erantzunetan, bat-bate-an, hitzetik hortzera darabiltzagun oinarrizko konpetentziak hauteman

nituen: “Norbera izaten ikasi”, “Ikas-ten eta pentsatzen ikasi”, “Elkarrekin bizitzen ikasi”, “Komunikatzen ikasi”, “Egiten eta ekiten ikasi”. Eta ohartu nintzen haren hitz eta pentsamen-duetan zeudela denak, bizitzari, bene-tako bizitzari, hertsiki lotuak.

Heziguneak, ustez, konpetentziez, curriculumez, unitate didaktikoz, adi-men emozionalez, elkarbizitzaz, en-patiez, barkamenez, eta abarrez bete zaizkigun garaiotan, barnekotasuna-ren eta humanitatearen hutsuneak oi-hu egiten duenean, kazetaritzatik iritsi zaigu xuxurla zintzoa.

Liluratzen duen gizatasuna ulertu nahi duela kontatu zien artaxoar-txikiei. Eseri nahi duela, entzun eta ulertu nahi zaituela. Jakinik ere, segu-ruenik, ez duela bat egingo zurekin. Hori zen Beriainen helburua, gurea ere beharko luke. «Batek irakurtzen eta idazten ikasten duenean baditu tresnak zer gertatzen den kontatze-

ko». Helburu ederra irakurtzen eta idazten ikasteko, ezta?

Ia batera, hezigunera hurbildu zai-gu A eskari batekin. Bizi esperientzia gogor batetik atera berri da, herrieta-ko sarrerak eraso matxistarik ez du-gula onartzen dioten kartekez bete di-ren sasoian. DBHko ikasleei esan nahi die salaketa telefonora deitzearekin soilik ez daudela salbu, orduan hasi behar duela haien borrokak. Gazteei gauzak benetan nola diren kontatze-ko eskatu digu.

Bizitzari leku batetik edo bestetik aurrez aurre begiratu dioten lagu-nen testigantzek sentiarazi didate zein urrun dugun hezkuntza bizi-tzatik. Eskola bizitzen ikasteko lekua izatea nahi badugu, egunero galdetu beharko genioke geure buruari zer den bizitza guretzat, benetan bizi ote dugun bizitza. Irakaspen ederra eman digute Beriainek eta Ak, konpeten-tziez eta balioez. •



David Beriaini Artaxoan egin zioten omenaldia.

Iñigo URIZ | FOKU